

Luzera

Luzera-unitateak distantziak edo tamainak neurtzeko erabiltzen dira, eta unitate nagusia honako hau da:

METROA.

Metroa baino unitate handiagoak hauek dira: **KILOMETROA**, **HEKTOMETROA** eta **DEKAMETROA**

Metroa baino unitate txikiagoak hauek dira: **DEZIMETROA**, **ZENTIMETROA** eta **MILIMETROA**

Zergatik esaten zaie horrela neurketa-unitateei?

- **DEKA** hitzak 10 esan nahi du.
- **HEKTO** hitzak 100 esan nahi du.
- **KILO** hitzak 1000 esan nahi du.
- **DEZI** hitzak HAMARRENA = 0,1 esan nahi du.
- **ZENTI** hitzak EHUNENA = 0,01 esan nahi du.
- **MILI** hitzak MILARENA = 0,001 esan nahi du.

Luzera-unitate guztiak eskala honetan ordenatu daitezke:

km	hm	dam	m	dm	cm	mm
1000 m	100 m	10 m	1 m	0,1 m	0,01 m	0,001 m



X 10



: 10

Oso garrantzitsua da unitate-eskala hau buruz ikastea, eskuinerantz zein ezkererantz, unitate batetik bestera joateko zenbat jauzi egin behar duzun jakiteko.

Adibidez:

- **Metrotik zentimetrora** joateko, **2 jauzi eskuinerantz** egin behar dira.
- **Kilometrotik metrora** joateko, **3 jauzi eskuinerantz** egin behar dira.
- **Dekametrotik hektometrora** joateko, **jauzi 1 ezkererantz** egin behar da.
- **Milimetrotik metrora** joateko, **3 jauzi ezkererantz** egin behar dira.

Ohartu unitate batetik beste batera pasatzeko:

- **Eskuinerako** jauzi bakoitzean, x 10 **biderkatu** beharko dugu.
- **Ezkererako** jauzi bakoitzean, : 10 **zatitu** beharko dugu.

Adibidez:

- 2 kilometro metrotara pasatzeko = $2 \times 10 \times 10 \times 10 = 2 \times 1000 = 2000 \text{ m}$
- 700 zentimetro metrotara pasatzeko = $700 : 10 : 10 = 700 : 100 = 7 \text{ m}$

Luzerak neurtzeko hainbat tresna erabiltzen dira, hala nola:

	
Zinta metrikoa edo flexometroa	Erregela
	
Laser neurgailua	Kalibrea
	
	Telefono mugikorren aplikazio batzuk

Luzera bat bi modutan adieraz daiteke:

- Era sinplea, **unitate bakarra** erabiliz. Adibidez: **152 cm**
- Era konplexua, **hainbat unitate** erabiliz. Adibidez: **1 m 5 dm 2 cm**

Jarraian, hurrengo fitxetan, ariketa mota hauek egingo ditugu:

- Kontzeptuak berrikustea.
- Zeroz jarraituriko unitateaz egindako biderketa eta zatiketak kalkulatzeko (10, 100, 1000...)
- Unitate batetik beste batera pasatzea.
- Era konplexura pasatzea (deskonposatzea).
- Era sinplera pasatzea (dena unitate batera).
- Luzera unitateekin eragiketak egitea.
- Luzera unitateekin buruketak ebaztea.

Ezer baino lehen, ikasi buruz unitateen eskala. Errepikatu behin baino gehiagotan erraz esan arte. Menderatzen duzula ziur zaudenean, sakatu **"ESKALA IKASI DUT"** dioen botoian, eta gero **"¡TERMINADO!"** dioen botoian, fitxa hau itxi eta hurrengora joateko.

ESKALA IKASI DUT